


## 5 IKUSPEGI OSAGARRI

Planteatutako problematikari erantzungo dioten ekintza-ildoak ezartzeko, ezagutza espezifikokoak eta ikuspegi osagarriak dituzten 5 lan-talde izan ditu oinarri programak.



### 5 IKUSPEGI OSAGARRI

- 1. Informazioa eta ezagutza aditua:** Oinarritzko informazio aditu ikuspegia. Ebidentzia zientifikoak. Abiapuntuko diagnostikoa eta helburu orokorren proposamena.
- 2. Sektore estrategikoeikiko lankidetzak:** Programaren agente eta partaideen ikuspegia. Aktore estrategikoen identifikazioa. Lankidetzak operatibo egiteko moduak.
- 3. Segmentu lehenetsiak:** Biztanleriaren ikuspegia. Publiko objektibo lehenetsiak eta gatazka-foko espezifikokoak.
- 4. Kontzientziaztea, gaitzea eta hedatzea:** Profesionalen ikuspegia, gizartea sentsibilizatzeko eta gaitzeko sistema eta agertokiak. Gaur egungo komunikazio eta sozializazio bideak.
- 5. Produkzio kontrola eta ebaluazioa:** Ikuspegi instituzionala – industrial. Monitorizatu beharreko parametroen identifikazioa. Lehentasunen ordena eta hemendik hiru urterako zaintza kanpainen egutegia.

Ondorengo hauek izan dira Euskadiko Elikadura Osasungarriko Ekimenen sustatzaileak:

- **Informazio eta ezagutza aditu taldea:** EHUko Farmazia Fakultatea; banaketa sektoreko enpresak; NAOS Estrategia; Osakidetza; Osasun Saileko epidemiologia; Osasun Publikoa eta Adikzioak (Osasunaren Sustapena); Euskadiko Osasun Inkesta.
- **Sektore estrategikoeikiko lankidetzak taldea:** snack-ak, edariak eta elikagaiak ekoizten dituzten enpresak; banaketa sektoreko enpresak; catering zerbitzuak, kolektibitateak eta sukalde zentralak; ostalaritzako sektorea; berrikuntza enpresa eta erakundeak; Elika; Osasun Publikoa eta Adikzioak (Osasunaren Babesa)
- **Segmentu lehenetsien taldea:** dietista-nutrizionista adituak; EHUko Farmazia Fakultatea; elikagaien

inguruko berrikuntza enpresak; udalak; hezkuntza sektoreko ikastetxe eta elkarteak; Osasun Publikoa eta Adikzioak (Osasunaren Babesa); Elikadura Berezia Fundazioa.

- **Kontzientziaztea, gaitze eta hedatze taldea:** gizarte-hezkuntza eta aisialdi elkarte eta erakundeak; kontsumitzaileen federazioak; hedabideak; pertsonen sormena estimulatzen duten enpresak; hezkuntza sektoreko ikastetxe eta elkarteak; Kontsumobide; Ihobe; Ezagutzaren Kudeaketa, Osasun Saileko Osasun Publikoa eta Adikzioak (Osasunaren Sustapena).
- **Ebaluazio eta kontrol taldea:** banaketa sektoreko enpresak; catering zerbitzuak, kolektibitateak eta sukalde zentralak; udalak; Osasun Saileko Osasun Publikoa eta Adikzioak (Osasunaren Babesa).